

## **3.2 GAIAREN LANKETA**

### **> Nire etxea**



#### **- Planoa**

##### **Helburuak**

- Etxeko gelen eta altzarien hiztegia ikastea.
- Etxeko gelen eta altzarien hiztegia erabiltzea.
- “Non dago?” egitura birpasatzea.
- Postposizioak birpasatzea.

##### **Prozedura**

- Umeei fitxa bana banatu.
- Fitxako puntuak jarraitzeko esan: gela bakoitzari izena eman, altzariak planoan marraztu eta planoak deskribatu.
- Hezitzaileak ume bakoitzaren planoak jaso eta zuzendu. Beharrezkoa bada, ume bakoitzarekin komentatu akatsak.
- Ume bakoitzak, gelako guztien aurrean, bere planoaren deskripzioa ahoz eman.